

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Josune Tolaretxipi Lizarralde

*Donostia,
Gipuzkoa
(1926-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Gros auzoko Artetxe Jenerala kalean jaio zen, eta hantxe bizi da orain ere. Aita donostiarra zuen, eta gerra aurretik Moderno garajea egiten zuen lana. Ama Urretxukoa zen, Donostiara neskame joana. Gerra aurretik Etxaide kaleko ikastolara joan zen Miren Josune, eta baita Iñaki Deunaren ikastetxera ere, Grosen bertan; euskaraz ikasten zen bietan. Gerraostean, berriz, Elizaranera joan zen, mojetara. Zazpi senidetan bigarrena, anai-arreben kargu egitea egokitu zitzaion nerabezaroan. Aita hirutan sartu zuten kartzelan, gerraostean, eta ama nahiko gazte hil zitzairen. 14 urterekin izebarekin josten ikasten hasi zen, etxean. Denak koskortuta zeudela, 39 urte zituenean, andereño hasi zen Zarautzen, ikastolan. Bi irakasle, 100 haurrekin. Lau urte egin zituen han, eta ondoren 23 Martutenen. Magisteritza titulua atera zuen, bere kasa, lana egiteari utzi gabe. Ezkongabea da.

Zintak

DON-044

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-27
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Zazpi senidetan bigarrena

- **Erref:** DON-044/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:02:44. **Bukatu:** 00:04:34

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Zazpi senide ziren, bera bigarrena. Aita donostiarra eta ama Urretxukoa; neskame etorria. Moderno garajeko bulegoan egiten zuen lana aitak, eta gerra garaian erre egin zuten. Gero, Electricas Urumean ibili zen.

2. Umetako jolasak eta lehengo Gros

- **Erref:** DON-044/004
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:05:23. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Umetako jolasak. Sokasalto, txapak... Kartoizko panpinak. Txingotan, tabetan. Hondartzara Kontxara; Grosekoa basatia zen lehen. Lehen, itsasoa ikusten zen etxetik. Zuloak zeuden. Hiltegia.

3. Gerra aurretik ikastolara

- **Erref:** DON-044/005
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:08:43. **Bukatu:** 00:11:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Gerra aurretik ikastolara joaten zen, Etxaide kalera. Subijana zen maistretako bat, eta Arzelus bestea. Moja joan ziren biak. Iñaki Deunaren ikastetxea. Gerrarekin bukatu zen.

4. Aita hiru aldiz preso

- **Erref:** DON-044/007
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerra urteak. Aitona gaixo zegoen, eta ez zuten alde egin. Aita hiru aldiz egon zen kartzelan. Ondarretako kartzelan zegoela hil zen aitona. Espioitzan ibili zelako hartu zuten preso bigarrenez. Urtebete heriotza-zigorrera kondenatuta. Amnistiarekin irten zen. Ama nola hil zen.</p>

5. Aita kartzelan zen bitartean

- **Erref:** DON-044/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Aita kartzelan zegoela, nola egin zuten aurrera. Electricas Urumeako nagusiak soldata ematen jarraitu zuen, nahiz eta bera monarkikoa izan. Anaia, ama eta izeba aita ikustera joan ziren behin kartzelara.

Transkripzioa

- Aita kartzelan zegoen bitartean, zuek nola atera ziñeten aurrera? Seme-alaba asko ziñaten eta...
- Ba beira, ba gure aita ordurako, ba... Itxoin, eske... "Eléctrica urumea" hortan zeuden enpresa gehio, Hernaniko fabrika iriñarena, "Loinaz y Ubarretxena" zan entidate bat ez? Eta ordurako gure aita jarri zuten ya kontable, ta kajero ta dena ez? Eta orduan, ba, nagusiyak, nahiz monarkikoa izan, pasa zigun soldata, soldata minimoa ba... mantentzeko lain bai.
- Horri eskerrak orduan ez?
- Eta bera esaten dizut monarkikoa zan e?
- Baiña jende ona ere badagola.
- Ba bai, eta berarekin jun zian nere anai zaharrena, eta ama ta izeba Talavera de la Reinara behin batean ama ikustera.
- Aita ikustera.
- Oi, aita ikustera.

6. Elizarango mojen oroitzapen onik ez

- **Erref:** DON-044/009
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Biteriko eskola publikoan ibili zen eta gero Elizarango mojekin. Ez du oroitzapen onik. Cara al Sol. Don Agustín Brunet. Pozik irten zen handik. Izeba jostuna zen, eta josten ikasi zuen.</p>

7. Josten ibili zen, etxeko kargu egitea egokitu zitzaion arte

- **Erref:** DON-044/010
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Izeba jostuna beraiekin bizi zen. Paulina Urrutiaren tailerrean ibili zen lanean, eta gero beste tailer batzuetan, ama hil zen arte. Etxeko kargu egin zen. Groseko azokak nolakoak ziren.

8. Arrain saltzaileak kalez kale

- **Erref:** DON-044/012
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Arrain saltzaileak, kalez kale; "a real el plato". Bokartak eta sardinak.

9. Josten ikasi ala ofizinara lanera

- **Erref:** DON-044/014
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:26:27. **Bukatu:** 00:27:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Josten nola ikasi zuen. Mahukak. Korteia ikastera joan zen akademia batera. Jostundegi asko zeuden. Ofizinan lana egitea zen beste aukera bat; eskolan ikasten zuten hori, baina bera ez zegoen gustura han.</p>

Transkripzioa

-Eta ze ikasi zenun josten? Zein izan zan zure espezialitatea?
-Ba, lehenbizi, "sobrehilatzen", botoiyak josten, kaja hartu ta entregatzen. Ta gero ba geroakoak, ba pixkanaka mangak eta egin eta. Nik utzi nunian, ba, gauza hoiyek eta, erremateak eta, zerbait banekin. Gero jun nintzan akademi batea korteia ikastea, ta behin korteia ikasi ezkeo, ya moldatzen nintzan.
-Eta tailler asko zeuden?
-Bai, jostundegi asko, orduan, beira, uzten zenun bat eta bestia...
-Eta neska askok ikasten zuten josten?
-Bai.
-Gehienek, ala?
-Beida, bi aukera zeuden: ofizinara o jostea. Nik nahiago nun josi.

-Eta ofizinara juteko ikasi beharko zan...?
-Eskolan bertan erakusten ziguten e, nik ikasi nun, kontabilidade pixka bat, eta makinan idazten eta. Preparatzen zizuten eta, baneukan jarraitzia, jarraitzen bazenun, iya-ia ateratzen ziñan kolokatuta.
-Baiña zu han ez zeunden gustora eta...
-Bai, "es que" nik ezin nun jarraitu.
-Bihotzeko miña emango zizun han eotiak, ez?
-Bai, bai, izugarria.

10. Uracan lantegian lanean

- **Erref:** DON-044/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:29:16. **Bukatu:** 00:31:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Nahiko berandu hasi zen andereño. Anaiak ezkondu zirenean. Uracan lantegian egin zuen lana. Tailaka lan egitea orduan hasi zen. Denda zuten, Bengoetxea kalean.</p>

Transkripzioa

-Eta zu, andereño, andereñua zea? Eta nolatan hasi ziñan andereño lanetan?
-Bueno, ba hori, hasi nintzan ni ba, nahiko berandu, nahiko berandu ba ya nere anaiak ezkondu ziranian eta tal, nik beti pentsatzen nun "Ni lanea jungo naiz", nere ametsa zan lanea jutia, eta berdin zitzaiten fabrika batian lana itia. Eta gaiñera hori, gero ere hasi nintzan, Uracanen lan egin nun. Uracan zan "fábrica de impermeables" ta "costura" ta. Ta orduan etorri zan e, "prêt-à-porter" moda, sortu zan, "prêt-à-porter" da, taillaka. Ez dena neurrira ta frobatu ta hori.
-A, hori "prêt-à-porter"...
- "Prêt-à-porter" sartu zan ni tailerrean nitzala, ta zan taillaka. Tailla bat, ba, da hiru zentimetro gehiyo bestia baiño. Orduan zan, fabrika zan.
-Uracan horretan, zein zan zure lana?
-Ba denetatik egin nun, egon nintzan makinista, egon nintzan mangak iten, han lana iten zan katean. Zuk iten dezu mangak, nik kueilloa, bestiak gona, bestiak... "en cadena".
-Bai, eta taillaka orduan ez, taillaka?
-Bai, bai.
-Eta ze, gero nun saltzen zan hori edo?
-Denda zuten.
-Denda zuten? Eta nola zun izena dendak, Uracan?
-Bai.
-Uracan, eta nun zeon denda hori?
-Ez dakit oaindik'e dagon nunbait. Nun zegoen, e, ni egon nitzanian zegoen, kale hori da, Bengoetxea, ateratzen dana Kontxara, oain zapateri bat dago uste det hor. Gero Egian jarraitu zun fabrikak, ta oain [...] ez dakit zer egiten duten.

11. Andereño nola hasi zen

- **Erref:** DON-044/017
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:31:19. **Bukatu:** 00:34:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Andereño lana proposatu zioten, Zarautzen. Kantatzeko zaletasuna zuen. Elbira Zipitria eta gerra aurreko ikastolak. Karmele Esnalek bideratu zuen; Amaran zebilen hura. 1965ean hasi zen.

12. Hasiera gogorra, Zarauzko ikastolan

- **Erref:** DON-044/018
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:38:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Zarautzen hasi zenean, ehun haur zituzten bi andereñoentzat. Frantziskotarrek utzi zieten lekua. Hiru urteko haurrak. Miren Eizagirre. Lau urte egin zituen han. Magisteritza ikasi zuen, bere kontura, poliki-poliki.

13. Martuteneko ikastolan 23 urte

- **Erref:** DON-044/019
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:38:28. **Bukatu:** 00:41:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Martutenen hasi zen ikastolan, elizako sakristian. Alfonbra lurrean. Giro zaila. Zarautz euskalduna, baina Martutene ez. 23 urte egin zituen han. Zarautzen zenbat lekutan egon ziren.

14. Kursaalean, poxpolinak

- **Erref:** DON-044/021
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:41:25. **Bukatu:** 00:42:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Kursaalean poxpolinak. Bera ere joaten zen. Abestiak ere han ikasi zituen; "Etxe pospola" kanta. Kantu abertzaleak. Don Ramon Laborda.

15. Elizan ia dena erdaraz

- **Erref:** DON-044/023
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:43:08. **Bukatu:** 00:46:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Kristau ikasbidea sortu zen, gerra ostean. San Ignazio elizan egiten zen zerbait euskaraz. Don Jose Maria Mujika. Apaizak, beti beldurrez euskaraz egiteko; orain ere bai. Familian, kristau giroa; mezak. Latina.

16. Martuteneko ikastola

- **Erref:** DON-044/026
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:50:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Martutenen beharra zegoen, eta gustura geratu zen. Hiru eta sei urte bitarteko haurrak. Lege aldaketarekin, Ergobiko eskola batekin elkartu ziren taldeak osatzeko. Grosetik joaten zen egunero. Zarauzko ikastolan ibili zenekoa.

17. Martuteneko ikastolan, giro ona

- **Erref:** DON-044/031
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:54:18. **Bukatu:** 00:54:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Martutenen giro ona zuten. Antzerkia, danborrada... euskal giroa.

18. Gizonak elkartean, emazteak etxean

- **Erref:** DON-044/036
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:56:43. **Bukatu:** 00:57:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Groseko batzokia, Carquizano kalean. Oilagorra elkarte gastronomikoa. Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak.

Transkripzioa

- Hemen nunbait eta noizbait gogoratzen naiz bialtzen ziatela aitari zerbait ematea eta hola, enkarguren batekin eta... Ta goatzen naiz hori, Kartizano kalia edo zegola batzoki bat.
- Ta zure aita han egoten zan, batzokian?
- Bai.
- Eta sozidadera juten zan, elkarte gastronomikon batera, zure aita?
- Bai, Oilagorrara edo.
- Orduan gizonek askatasun gehiago zuten...
- Hombre!
- ...nahi zutenean jun tabernara ta emakumia...
- Bai, beti beti, lanetik bueltan bakizu.
- Ta emakumea, berriz, etxian.
- Klaro, nola ez zuten lanik iten.
- Umien kargu ta bazkariya ein ta...
- Klaro, hala zan e? Aldatu da, bueno!

19. Groseko labaderoa

- **Erref:** DON-044/037
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:57:34. **Bukatu:** 00:58:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Labaderoa non zegoen, azokaren tokian. knatatu egiten zuten emakumeek. Zurriolan arrantzan eta lapa bila. Lagun baten aita ito egin zen.

20. Donostiako tranbia

- **Erref:** DON-044/041
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:02:35. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Tranbia San Frantzisko kaletik pasatzen zen. "Donostiara" joateko hartzen zuten.</p>

21. Errazionamendu garaia

- **Erref:** DON-044/043

- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:05:09. **Bukatu:** 01:06:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostea. Olio falta. Irinen fabrika egiten zuen lana aitak, eta okindegira eramaten zuten. Urnietako esnezalea. Errazionamenduko ogia eta txokolatea. Groseko txokolate lantegia.

22. Lutoa eta ezkontzak

- **Erref:** DON-044/045
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:07:38. **Bukatu:** 01:08:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Lutoa, urtebetekoa. Zuri-beltza. Beltzez ezkontzea normala zen.</p>

23. Nerecan eta zezen-plaza

- **Erref:** DON-044/046
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 01:08:54. **Bukatu:** 01:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Groseko lantegiak. Nerecan lantegia. Txofreko zezen-plaza. Aroztegiak eta karrozeriak. Euskal jai bat egin zuten Txofren behin, gerra ondoren. Turismoa.

24. Groseko lanbideak

- **Erref:** DON-044/052
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:15:35. **Bukatu:** 01:17:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Aroztegiak. Ikazkinak, San Frantzisko kalean. Portaletan, zapata

konpontzaileak. General Artetxan, alpargata lantegia. Fideo lantegian, emakumeak. Tabakalerako lana; ondo irabazten zuten.

Transkripzioa

- Esan dezu arotzak zeudela asko, aroztegiak?
- Aroztegiak, gero eraman zituzten denak kanpora, ba hor Hernani, Astigarraga...
- Eta ikazkiñak eta, bueno...
- Ikazkiñak ere baita bazeuden, hemen'e. Beste kale hontan, San Francisco kale hontan ere, klaro, etxe habek berriyaguak dira, hemendik gora, ta hoiyetan zegon ikazkiña'e baita. Ta hori dena bota zuten ba etxiak iteko, ta lantegiyak bialdu zituzten kanpora.
- Eta zapata-konpontzaileak eta ere egon zian?
- Bai, portaletan'e bai, egoten zian.
- Portaletan, lanian? Eta kalia? Ez.
- Kalia ez, baiño portaletan hemen San Franciscon nik ezagutu nun. Eta beste kale hontan ere bai.
- Eta orduan erabiltzen zian, ze erabiltzen zian, alpargatak eta?
- A, zegon hemen'e baita, General Artetxeko orain esan dizuten numero hontan, lehenoz ez zian numeroak, hor zegon alpargateri bat, fabrika.
- A! Fabrika e? Eta zer zeuden hor lanian, emakumeak ala gizonak?
- Ba ez dakit emakumeak lana egiten zuten. "Fábrica de fideos" 'e baita zegon hemen nunbait, ta hara joaten zian emakumeak. Ta gero ba Tabakalerara. Joera asko zegon, ba, Tabakalerako lana zan...
- Zigarrerak?
- Zigarrerak zian bitxiak, ondo irabazten zutenak eta...

25. Hautsekin egindako tortilla

- **Erref:** DON-044/056
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:19:00. **Bukatu:** 01:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Babarrunak eta berdura jaten zen asko. Arroza. Arrautzak. Tortilla bejetala, hautsekin egindakoa, gerra ostean. Olioaren ordezkia.

Transkripzioa

- Eta etxian gehien ze jaten zan, babarrunak?
- Bai, babarruna.
- Hori etxe denetan izango zan ez? Ze... ez zegon...
- Berdura're bai: azak eta babarruna eta lentejak. Baiño makarroiak eta ez zan jaten asko. Arroza.
- Arroza bai? Eta arrautza eta..
- Arrautzak, arrautza prejitua. Tortilla! "Tortilla vegetal" ere jan genun gerra denboran e? O gose denboran.
- Ta nola zan hori?
- "Tortilla vegetal", hautsa batzuekin itten zun.
- A bai? Arrautza gabe?
- Bai.

- Ta hola saltzen zuten? Hautsak...
- Ba bai, salduko zuen hola, bai.
- Eta asmatzen zenituzten gauzak oliyuan partez beste zerbait bota eta janariya falta zana...?
- Ba esaten dizut gerra zabal zala ez dakit zen sebo antzekoa o nik hola ideia bat badaukat granja batek ez zidala batere gaiñera onik egiten eta ez zala oliyua.
- Hori banatzen zuten razionamenduan?

26. Urterik onenak, ikastolan

- **Erref:** DON-044/058
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:20:33. **Bukatu:** 01:22:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Bizitzako urterik ederrenak ikastolan eman zituen. Giro polita. Martuteneko ikastola. Elizak babestu zituen ikastolak. Inspektorea joan zitzaion behin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com